

# **1. Balio proposamena**

Gure ideiaren ardatz nagusia hurrengoak izango dira: eskola-jantokietan eta supermerkatu ezberdinetan erabilitako janaria berrerabiliko dugu.

Beraz, gure negozioa bi ataletan banatuta egongo da:

- Alde batetik, prestatutako janaria salduko dugu, eramateko eta berotzeko. Guk ez ditugu iraungitako edo egoera txarrean dauden produktuak hartzen, ontziratzean edo estetikan huts egiteagatik erabiltzen ez diren produktuak baino ez ditugu hartzen, eta guztiz jangarriak dira. Gure produktu nagusia sektore honetan jantokietan soberan dagoen janaria, Jantoki horietan, jende askorentzat prestatzen denean janaria, neurririk gabe prestatzen da, eta janari asko soberan dago. Normalean alferrik galtzen da, baina guztiz ontziragarria eta jangarria da. Horregatik, guk berriz erabiltzea proposatzen dugu.
- Bestetik, sukaldatu gabeko produktuak eskainiko ditugu. Gure elikagai nagusiak fruta, barazkiak eta jateko baldintza onagarrietan ontziratutako edozein produktu. Merkeago salduko ditugu, supermerkatuen produktuen kalitatea gure produktuena baino hobea delako eta ezin dugu prezio berdinean saldu ez litzatekeelako justua bezeroentzat.

Gure helburu nagusia Bilbo aldeko biztanleriari jan ahal izateko egoera onean dauden elikagaiak eskaintzea izango da, eta prezio baxuetan salduko duguna; inguruko errenta baxuko biztanlea izango delarik gure bezero-xedea. Supermerkatuek ez erabilitako produktuak izanez ez dira egoera bikainean egongo eta ezin izango ditugu haiek baino garestiago edo berdin saldu. Gure negozioaren ideia nagusia hurrengoak dira: gure produktuak saltokiek saldu ez dituzten produktuak izango dira

Gure dendan eskuragarritzko prezio bat eskaintzen dugu, mundu guztiak gure produktuan erosteko aukera izan dezan, bai bezeroarentzat bai guretzat errentagarria izan dadin.

Produktuen trazabilitatea argi azalduta jartzen dugu, gure bezeroei fidagarritasun gehiago emateko. Produktu bakoitzaren jatorrizko supermerkatua edo jantokia azalduko dugu, bezeroek jakin dezaten nondik datorren gure produktuak. Horregatik, gure janaria egoera hoberean egotea ziurtatzen dugu, gure bezeroen ongizatea bermatzeko.



dugu.

Gure negozioaren baliorik handiena da denda fisiko bat dela. Horrek bakarrak egiten gaitu gure sektorean; izan ere, janaria berrerabiltzeari buruz dauden plataforma bakarrak digitalak baino ez dira, adibidez, To Good To Go... Ez dugu baztertzen gure negozio fisikoarekin batera plataforma digital bat izatea, horrek ez bailiguke gastu handirik ekarriko. Gure idei nagusia denda fisiko moduan hasta eta lan egitea da, baina gure negozioa Ondo funtzionatzen badu, iraganean modu digitalean saltzea posibilitate moduan izango

**Gure logoa:**

Gure logoak gure negozioaren ideia nagusia, birziklatzea, irudi eta koloreen bidez adierazten du. Gure asmoa da bezeroek logoa gure negozioari lotzea erraztasunez eta negozioarekin fidelizatzea.